

## **KONTROL MOZIOA**

### **ETXERIK GABEKO PERTSONENTZAKO BALIABIDEAK DIRELA ETA**

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzatzen Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkeztu du Udaltzatzen azter dadin. Mozioa 2018ko apirilaren 16an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpellazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Azkenaldian, hiriko hainbat auzotan, kalean bizi diren pertsonen taldeak areagotu egin omen dira. Hain zuzen ere, erregistro bidez hiritarrek aurkeztutako komunikazioek hori adierazten dute: Garroko zubian bizi diren pertsonen inguruko kezka, Groseko Kale Berrian, Castelao parkean, Katalunia plazan... Etxegabekoekin lan egiten duten eragileek ere (Caritas, Rais eta abar) kalean bizi diren pertsonen kopurua, Euskal Herri osoan, igo dela adierazi zuten apirilean, hainbat komunikabidetan.

Aipatutako zonalde bakoitzean egunero lau edo bost pertsonen osatutako taldeak elkartzen dira eta hilabeteak daramatzate kale gorrian bizitzen. Esate baterako, Castelao parke inguruan bizi diren bizilagunek urtarilaren 22an adierazi zuten erregistro bidez pertsona talde bat parkean bizi zela eta erantzunik jaso ez dutenez, martxoaren 15ean berriro ere kexa bat aurkeztu dute erregistroan.

Apirilean udal talde honek Caritasek kudeatzen duen Aterpea bisitatu zuen, eta bertako arduradunek adierazi ziguten egunero lo egiteko eta bazkaltzeko leku bat behar duten 75 pertsonen itxaron zerrenda dutela. Honek agerian jartzen du hiriko baliabideak ez direla nahikoak.

Hain zuzen ere, EAEko gizarte zerbitzu sistemak izan behar dituen baliabideak arautzen dituen dekretuak (Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa) jasotzen du Donostiako Udalak 14 plazan defizita duela kalean bizi diren pertsonak artatzeko. Udal Gobernuak behin eta berriro aipatu digu Housing First programaren inplantazioa, Foru Aldundiarekin batera kale egoerei irtenbidea emateko, baina programa horrek ez du hiriko beharra asetzen eta plazan defizita konpontzen.

Bestetik, apirilean komunikabideetan ikusi dugu Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiekin eta udalekin batera, bizitegi-bazterkeria egoerei aurre egiteko Etxegabeentzako Euskal Estrategia onartu duela. Estrategiaren txostenean jasotzen da bi urteko epea izango duela (2021. urtera arte) eta oinarritzko helburua izango dela etxebizitza eskubidea bermatzea hiri handietan, etxebizitza eredu eta sare berri bat abiatuz, baina ez dira neurriak jasotzen proiektuan.

Urtarrileko udalbatzarrean talde honek aurkeztutako kontrol mozio bat onartu genuen aho-batez:

1.- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari kronograma eta plangintza bat egin dezala bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako 14 plazak ezartzeko bide-orrria zehaztuz.

2.- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari kronograma eta plangintza hori udal talde guztiokin parteka dezala.

Geroztik etxegabekoentzako zerbitzuekin erlazionatutako informazioa prentsaren bidez jaso dugu, Eusko Jaurlaritzak landutako estrategia dela eta.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

### KONTROL MOZIOA:

1.- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Gizarte Zerbitzuen Zorroak bazterkeria eta kale egoeran bizi diren pertsonentzat jasotzen dituen baliabideak martxan jar ditzala lehenbailehen.

2.- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari udal taldeekin eta etxegabekoekin lan egiten duten eragileekin lan saio bat egin dezala Etxegabeentzako Euskal Estrategiak Donostian izango duen eragina azaltzeko.

3.- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari urtarrileko udalbatzarrean aho batez onartutako mozioak jasotakoa bete dezala.

Donostian, 2018ko maiatzaren 18an

Olaia Duarte López

EH Bildu udal taldeko zinegotzia